

SAILBURUA
LA CONSEJERA**AGINDUA, 2018KO ABENDUAREN 18KOA, LAN ETA JUSTIZIAKO SAILBURUARENA. HONEN BIDEZ, GIPUZKOAN BIDE GARBIKETAREN ETA HONDAKIN BILKETAREN SEKTOREKO ENPRESEN LANGILEEK KOMUNITATEARI EMATEN DIZKIOTEN FUNTSEZKO ZERBITZUAK EMATEN JARRAITZEA BERMATZEN DA.**

Gipuzkoako lurralde historikoan bide garbiketa publikoa, ureztaketak, etxez etxeko zabor bilketa, hiri hondakin solidoen zabortegiak, hiri hondakinen tratamendua eta ezabapena, gaikako bilketa, birziklapen plantak, estolderiaren garbiketa eta kontserbazioa eta hondartzen, portuen, ibaien eta ibai ibilguen garbiketa, mantentzea, artapena eta berreskurapena zerbitzuak ematen dituzten enpresen langileen ordezkariak muga jakinik gabeko grebara deitu dute. Greba hori 2017ko abenduaren 19an, 21:00etan hasiko da, deitzaileen aburuz, honako helburua lortzeko: "gure plataforman azaldutako asmoak".

Espainiako Konstituzioaren 28.2 artikulua langileen greba egiteko eskubidea onartzen du, langileek beren interesak defenda ditzaten, horixe baita egungo zuzenbide-estatu sozial eta demokratikoak oinarri dituen funtsezko eskubideetako bat. Konstituzioak, beraz, berdin babesten ditu greba-eskubidea eta beste zenbait eskubide garrantzitsu, hala nola bizia, osotasun fisikoa eta osasuna. Eskubide horiek guztiak Konstituzioaren babes osoa dute, eta, beraz, ezin dira behar bezalako babesik gabe geratu, grebarako eskubidearen erabilera bidezkoaren aurrean. Babes horrek ezin du, ordea, edukirik gabe utzi greba egiteko eskubidea, hain zuzen ere haren ezarpenak izaera murriztailea izan behar duelako, Konstituzio Auzitegiak ezarritako doktrinaren arabera.

Grebarako eskubidea erabili ahal izateko baldintza da, beraz, komunitatearen funtsezko zerbitzuei eutsiko zaiela bermatu beharra, eta funtsezko zerbitzu horiek, konstituzio-doktrinaren arabera, Konstituzioak babestutako ondasunak, askatasun publikoak eta oinarrizko eskubideak dira. Hortaz, aztertu behar dira Gipuzkoako bide garbiketaren eta hondakin bilketaren sektoreko enpresen langileen ordezkariak deitutako grebaren inguruabar zehatzak, bai babestutako eskubideen edo ondasunen ikuspegitik eta bai egiten den zerbitzuaren beharrezanaren ikuskeratik. Grebak honakoetan du eragina: Gipuzkoako lurralde historikoko bide garbiketan eta hondakinak batzean; Gipuzkoak ontziak banantzeko dituen bi plantetan, Legazpin eta Urnietan; Aizmendiko Inerteen Hondakindegian eta San Markosko hiri hondakin solidoen hondakindegian. Ontziak banantzeko plantetan ontzien eta bilgarrien hondakinak sailkatzen dira, behin bide publikoan selektiboki jasota; behin sailkatu eta errefusa kenduta, birzikla daitezke. San Markosko hiri hondakin solidoen hondakindegia hondakin zuriak, egurra, txatarra eta bestelakoak jasotzen ditu, gero desagerrarazteko. Azkenik, Aizmendiko inerteen zabortegian eraikuntzako, industriako eta abarreko hondakin solido inerteak jaso eta tratatzen dira.





Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.2 b) artikulua araberak, udalak «...hiri hondakin solidoak kudeatu,...» behar ditu. Eta 26.1 artikuluan: "Udalek honako zerbitzuak eman behar dituzte: a) Udalerri guztietan: Hondakinak jasotzea, bideak garbitzea...". Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.1.16 artikulua araberak, "bide garbiketaren zerbitzua ordenatu, kudeatu eta ematea ..." udalen eskumen propioa da, eta artikulua bereko 17. atalean dionez, "udal-hondakinak edo hiri-hondakin solidoak bildu eta tratatzeko zerbitzuak antolatzea, kudeatzea, ematea eta kontrolatzea..." ere. Hala ere, zerbitzu hori ematea ez da beti berdina osotasun fisikorako eta osasunerako eskubidea bermatzeko eskatzen duen funtsezko zerbitzuaren ikuspegitik.

Horrez gain, deialdiaren arabera greba amaiera jakinik gabekoa da, beraz, bertan behar uzten ez bada, garbitze eta jasotze zerbitzuak zeharo uzten badira eman barik greban Gipuzkoako lurralde historikoko erasandako udalerrietan, egoera larri bihur daiteke osasunaren eta ingurumenaren degradazioaren ikuskeratik, hondakin organikoak deskonposa daitezkeelako, eta hori herritarren osasun publikoa babesteko eskubideen kontrakoa da. Eskubide horiek Espainiako Konstituzioaren 43. artikuluan daude jasota eta botere publikoek bermatu behar dituzte nahitaezko zerbitzuok emateko aurrearretazko neurriak jarri. Neurri horiek hartzeko garaian, erasandako populazioaren interes orokorra eta langileen greba eskubidea bateragarriak izan behar dira, hau da, Espainiako Konstituzioan agertzen den eskubide horrek ezin dizkie ezarri herritarrei neurri kanpoko sakrifizioak.

Izan ere, funtsezko zerbitzua denez, osotasun fisiko eta osasunerako eskubidea bermatu behar da, baina greban babestu behar diren zerbitzu guztiak ez dira modu berean bermatu.

Hortaz, bide garbiketa Gipuzkoako lurralde historikoan guztiz eta muga jakin barik etetea Espainiako Konstituzioak babestutako beste eskubide batzuen kontrakoa da, beraz, ehuneko bat zehaztu behar da bideak ez garbitzeak kalterik ekar ez diezaion herritarren osasunari hondakinak, hautsa edo lurra batzen direlako, eta erabiltzailerik zaugarrienen eremuak lehenetsi behar dira, haurren parkeak adibidez. Horrez gain, gutxieneko zerbitzuak ezarri behar dira aparteko eguraldi txarrak ekar ditzakeen istripuei edo larrialdia aurre egiteko, zerbitzuok udalek eskatuta egiten baitira. Gauza bera gertatzen da azoketan eta merkatu txikietan edo aparteko ospakizunean, jende asko batzen baita, eta bertan ere osasun publikoa bermatzeko ezinbestekoa da gutxieneko zerbitzuak gehitzea.

Hondakinak jasotzeari dagokionez, hondakin solido organikoak jasotzea lehenetsi behar da, erraz deskonposatzen direlako eta infekzio iturri azkar bihurtzen direlako, beraz, kasu horretan gutxieneko zerbitzuak indartu behar dira.

Era berean, zenbait tokitan –haurrentzakoak, osasun arlokoak edo hezkuntzakoak– pertsona zaugarriak ibiltzen dira, beraz, hobeto babestu behar dira.

Horrez aparte, gorago esan bezala, greba amaiera jakinik gabekoa da, eta bat dator ospakizun tradizionalekin, zeinetan jende asko batzen baita leku zehatz batzuetan, beraz, zabor ugari metatzen da eta beharrezkoa da gutxieneko zerbitzuak indartzea, pertsonen osotasuna eta osasun publikoa bermatzeko eta eskubide hori (Espainiako Konstituzioaren 17. artikulua) arriskuan ez jartzeko. Gauza bera gertatzen da turista ugari doan tokietan –Donostiako udalerrria merkataritzako ordutegien ondorioetarako turismo handiko eremutzat jo dela argitara ematen duen Turismo eta Merkataritzako



sailburuordearen 2016ko abenduaren 15eko Ebazpena-. Merkataritza eremu horietan, Gabonetan jarduera asko egiten dira, eta gorago aipatu kasuetan bezala, osasun publikoa eta herritarren segurtasuna jar daiteke arriskuan, gutxieneko zerbitzuak indartzen ez badira.

Birziklatze plantak eta zaborteziak zabalik egon behar dira eta gutxieneko zerbitzuek hondakinak biltzeaz gain, tratatu behar dituzte ingurumena babeste aldera. Izan ere, plantootan hondakin mota guztiak metatu edo birziklatu behar dira Konstituzioko 45. artikulua honakoa ezartzen duelako: Guztion eskubidea da gizabanakoaren garapenerako egoki den ingurumena izatea, eta guztion eginbeharra ere bada hori zaintzea. Ondorenez, azaltzen diren gutxieneko zerbitzuak nahitaezkoak dira zentroak segurtasunez zabaltzeko eta hondakinak ingurumenaren ikuspegitik metatu eta tratatzeko.

Lan Harremani buruzko martxoaren 4ko 17/1977 Errege Lege Dekretuaren 10.2 artikulua honako hau xedatzen du: «greba egiten denean edozein zerbitzu publiko edo onartuta dagoen eta geroraezina den beharrezko edozein zerbitzu eskaintzeko enpresetan, eta larritasun bereziko egoerak daudenean, gobernuko agintaritzak beharrezko neurriak hartu ahal izango ditu zerbitzuen funtzionamendua ziurtatzeko» eta «Gobernuak, era berean, horretarako beharrezkoak diren esku-hartze neurriak har ditzake».

Konstituzionaltasuna aitortuta duen arau horretan (Konstituzio Auzitegiaren 11/1981 Epaia, apirilaren 8koa [KAB 1981\11]), Konstituzioaren greba-eskubideari buruzko 28.2 artikuluaekin bat etorri (artikulu horretan honako hau ezartzen baita: «eskubide horren erabilera arautzen duen legeak beharrezko bermeak ezarriko ditu gizartearentzako funtsezko zerbitzuei eutsiko zaiela ziurtatzeko»), gobernu-agintaritzari hainbat motatako berme-neurriak hartzeko aukera ematen zaio, greba-kasuan funtsezko zerbitzuei eusteko, eta neurri horietako bat da administrazio-ebazpen bidez jarduerari eusteko ezinbesteko gutxieneko zerbitzuak ezartzea, eta zerbitzu horiek emateko langile kopuru jakin bati dei egitea, lan-prestazio hori eman beharrekoa baita.

Horregatik, Lan Harremani buruzko martxoaren 4ko 17/1977 Errege Lege Dekretuaren 10.2 artikuluan aipatzen den prozedura bideratu da, eta erasandako alderdiei, langileen ordezkariari, sektoreko enpresa elkarteari eta Eudeli hitz egiteko aukera eman zaie, Jaurlaritzaren proposamenaren eragina jasango duten zerbitzuei eta langileei buruzko proposamenak egin ditzaten. Bileran, enpresaburuak eta langileen ordezkariak, greban eman beharreko zerbitzu zehatzen inguruan ados jarri ez diren arren, aitortu dute ematen dituzten zerbitzuak funtsezkoak direla eta beharrezkoa dela gutxieneko zerbitzuak ezartzea, bai hondakinak batzeari eta bai kaleak garbitzeari dagokionez, baita hondakinak tratatzeko plantetan eta zaborteziatan ere.

Lan eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 84/2017 Dekretuaren 3.1 artikulua Lan eta Justiziako sailburuari ematen dizkio azaroaren 26ko 24/2016 Dekretuan jasotako eskumenak (24/2016 Dekretua, azaroaren 26koa, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen). Dekretu horren 16 artikuluan, Lan eta Justizia Saila sortzen da, eta, beste egiteko eta jardun-arlo batzuen artean, lan-arloko legeriak lan-harremani buruz ezartzen duena egikaritzeko egitekoa esleitzen zaio, eta, ekainaren 11ko 139/1996 Dekretuaren bidez eskuordetzen zaio zerbitzu publikoak edo premia biziko eta atzerazineko zerbitzuak eskaintzeko ardura duten enpresa, entitate eta erakundeetan greba-eskubidea baliatzen dutenean





autonomia-erkidegoko funtsezko zerbitzuei jardunean eutsiko zaiela ziurtatzeko beharrezko diren neurriak ezartzeko eskumena.

Horregatik guztiagatik, Lan eta Justiziako sailburuak, Eusko Jaurlaritzak eskuordetuta, honako hau

EBAZTEN DU

Lehenengoa.- Gipuzkoako lurralde historikoan kaleak garbitzeko, zaborrak jasotzeko, zaborrak tratatzeko plantetako eta hondakinen zabortegietako enpresetan zerbitzuak ematen dituzten langileek amaiera jakinik gabeko greba –2017ko abenduaren 19an, 21:00etan hasita– egiteko duten eskubidea honako gutxieneko zerbitzuak errespetatuz egikarituko da:

1. KALE GARBIKETA

- a. Udalerrietako eta mankomunitateetako kale garbiketari dagokionez, gutxieneko zerbitzua eguneroko ohiko zerbitzuaren % 25 da, eta txandaka egingo da udalerrri osoan haurren parkeak eta eskoletako patioak eta hondakinak batzeko eremuak zainduko dira bereziki.

Ehuneko horretara honakoak batu behar dira: estolda zuloak garbitzea, paperontziak garbitzea eta estolden estalkiak konpondu eta berriz jartzea.

- b. Honako egoera berezietan garbiketarako beharrezkoak diren langileek egingo dute garbiketa: oso eguraldi txarra, istripuak, larrialdiak, koipea edo gantzua isurtzea edo hildako animaliak kentzea.
- c. Azoken edo kalez kaleko salmentako merkatu txikien ostean, beharrezkoak diren langileek egingo dute garbiketa.
- d. Jaietan edo jende asko batzen duten jendaurreko beste ekitaldi batzuetan garbiketa egin ohi duten langileen %100ek garbituko dute.

Kasu horietan ohiko indartze langileak batu daitezke. Horretarako, aurreko urtean egon bada ekitaldi bera erreferentziazat joko da. Enpresak egokiro egiaztatu beharko du aurreko urteko errefortzuak beharrezkoak izan zirela.

2. HONDAKINAK BILTZEA

- a. Txandaka eta ohiko zerbitzuaren % 40 hiri hondakin solidoak –zaborrontzien organikoak barne eta merkataritza eremuak eta industria poligonoak barne– jasotzeko eta hondakinak tratatzeko gunetara garraiatzeko. Gainezkatzeak batzea ere barne.
- b. Ohiko zerbitzua erabiliko da arrantza lonjetan, osasun zetroetan eta laguntza egoitzetan sortutako hondakinak jaso eta hondakinak tratatzeko gunetara garraiatzeko.
- c. Papera, kartoia, ontziak eta beira txandaka eta lau egunean batean jasoko dira, ontzietan dagoena eta ontzitik kanpo geratu dena.



Turismo handiko eremutzat jotako Donostiako udalerrian, ohiko zerbitzuaren % 50 egingo da 2017ko abenduaren 21ean, 22an, 23an eta 26an eta 2018ko urtarrilaren 2an, 3an, 4an eta 5ean.

d. Oro har, etxeko gauzak edo gauza handiak astean behin jasoko dira.

Astean behin jaso ohi den herrietan edo mankomunitateetan hamabostean behin jasoko da.

Donostian eguneroko ohiko zerbitzuaren % 25 egingo da.

3. ONTZI ARINAK BERRESKURATZEKO LEGAZPI ETA URNIETAKO PLANTAK

Planta horiek ohiko orduetan egongo dira zabalik, eguneroko langileen % 30 lanean.

4. INERTEEN AIZMENDIKO ZABORTEGIA

Planta hori ohiko orduetan egongo da zabalik, eguneroko langileen % 30 lanean;

- Pertsona bat zerbitzuen zuzendaritzan eta kontrolean.
- Peoi bat baskulan txanda bakoitzean, goizez eta arratsaldez.
- Makinista bat txanda bakoitzean, goizez eta arratsaldez.

5. SAN MARKOS ZENTROA

Planta hori ohiko orduetan egongo da zabalik, eguneroko langileen % 30 lanean;

- a. Pertsona bat zerbitzuen zuzendaritzan eta kontrolean.
- b. 5 peoi Baskulan eguneko 24 orduak bete ditzaten banatuta.
- c. Arduradun bat desgasifikaziorako eta lixibiatuentzat.
- d. Peoi bat transferentzia plantan txanda bakoitzean, goizez eta arratsaldez.
- e. Makinista 1 eta peoi 1, sailkatzeko eta xehatzeko.
- f. Gidari 1, zaborrontziak garraiatzeko, berorren lanaldiaren % 25, kanpoko zerbitzuak egiteko.

Bigarrena.- Aurreko atalean aipatutako gutxieneko zerbitzuak emateko hasiera epearen konputua 2017ko abenduaren 19ko 21:00etan hasiko da.

Hirugarrena.- Dagozkion administrazio-izapideak betez gero, aipatutako zerbitzuak aldatu ahal izango dira grebaren iraupenagatik edo bat-bateko ezohiko arrazoiak direla-eta ezinbestekoa baldin bada.

Laugarrena.- Ahal dela, greba egin behar ez duten langileek emango dituzte zerbitzu horiek, non eta langile horiek ez diren iristen ezarritako gutxieneko zerbitzuak betetzera.

Langileen ordezkariari aginduz entzun eta gero, enpresaren zuzendaritzak esleituko dizkie funtzioak langileei. Nolanahi ere, aurreko artikuluan eta indarreko legerian ezarritako mugak errespetatuko dira, eta greba egiten duten langileen errotazioa erraztuko da.

Bosgarrena.- Agindu honen aurreko zenbakietan bildutako gutxieneko zerbitzuak ezin izango dira aldatu haiek egiteko izendatuta dauden langileen aldaketa edo geldialdien





ondorioz. Halakorik gertatuz gero, legez kontraktotzat joko dira eta horiek egiten dituztenak erantzule izango dira, eta erantzukizuna eskatuko zaie indarrean dagoen ordenamendu juridikoaren arabera.

Seigarrena.- Aurreko artikuluetan xedatutakoa gorabehera, greba egiten duten langileen eskubideak, grebari buruzko araudiak aitortzen dituenak, ez dira inola ere murriztuko, ezta grebarako deia egin dutenen eskakizunen izapidetzea eta ondorioak mugatuko ere.

Zazpigarrena.- Jakinarazten den egunean sartuko da indarrean agindu hau.

Zortzigarrena.- Ebazpen honen berri eman behar zaie interesdunei, betiere Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan xedatutako moduan; halaber, ebazpenak administrazio-bidea agortzen duela jakinarazi behar zaie, eta horren aurka administrazioarekiko auzietarako errekurtsoa jarri ahal izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren dagokion salan, ebazpena jakinarazten denetik kontaktzen hasita 2 hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera.

Era berean, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124. artikuluetan aurreikusitakoari jarraikiz, honako hau ere jakinarazi behar zaie: agindu honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez daitekeela Lan Administrazioko Agintaritzan, agindua jakinarazi eta biharamunetik kontaktzen hasita hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko abenduaren 18a.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
LAN ETA JUSTIZIA
SAILA
DEPARTAMENTO DE TRABAJO
Y JUSTICIA
MARÍA JESÚS CARMEN SAN JOSÉ LÓPEZ
LAN ETA JUSTIZIAKO SAILBURUA

